

William Golding idazle britainiarra hil da

LONDRES

William Golding idazle britainiarra joan den larunbatean hil zen Falmouth (Cornualles) hiri ingelesean, 81 urte zituela. Literaturako Nobel Saria eskuratu zuen 1983an William Goldingek.

William Goldingen eleberririk ezagunena, 'Eulien ugazaba' izenekoa, Joxe Austin Arrietak euskaratu eta Elkar argitaletxeak eman zuen argitara 1990ean. Haur batzuek irla batean galdurik bizi duten abenturan oinarriturik, giza izaeraren alderdirik ilunenak utzi zituen agerian Goldingek eleberririk horretan.

Bigarren Mundu Gerran Britainiako Armadako kide izan zen Golding eta Normandiako lehorreratzeko guduan parte hartu zuen. Idazleak berak behin baino gehiagotan esan zuenez, orduan bizi izandako esperientziak izan ziren 'Eulien ugazaba' eleberraren sorburu nagusia. Honako mezu hau zabaldu nahi izan zien Goldingek bere obraren bidez britainiarrei, egileak berak hainbat elkarriketa eta adierazpenetan azaldu zuenez: «Gerra irabazi eta nazismoa gailendu duzue-lakoan zaudete; eta, horrenbestez, herri zintzo eta garbia osatzen duzue-lakoan. Baina, begira ezazue zuen inguruan: gaitza gu guztion baitan dago».

Bi filmeren oinarri ere egin zen Goldingen 'Eulien ugazaba', eta bai filmek eta bai liburuaren arrakastak oso pertsonaia ezagun eta ospetsu bihurtu zuten. Ospe horren ondorioz, 1988an Britainiar Inperioko Ordeneko zaldun titulua eman zion Isabel II Ingalaterrako erreginak.

Cornwell (Cornualles) da Goldingen jaioterria. 1911ko irailaren 19an ikusi zuen idazleak lehen argia. Marlborough Grammar Schoolen egin zituen lehen ikasketak eta gero Oxfordeko unibertsitatean graduatu zen. Bigarren mundu gerra amaitu ostean, Wordsworth-eko (Salisbury) gotzaindegian egin zuen lan, 15 urtez, gramatika ingeleseko irakasle gisa.

«Bere arte narratibo errealistaren garbitasuna eta egungo giza izaera argitzen duen mitoaren dibertsitate» goraiatu zituen Suediako Akademiak Nobel Saria ematean.

Agirre eta Murumendiaraz txapelkun

Bergararrak aise nagusitu ziren Euskadiko Dantza Askatuko Txapelketan

Amaia Agirre eta Eduardo Murumendiaraz bergararrek irabazi zuten igandean Seguran jokatu zen Euskadiko XVII. Dantza Askatuko Txapelketa. Lehengo urtean garaipena eskuratu eta aurten faborito ziren Belen Sagarzazu eta Isaac Agirre bigarren postuan sailkatu ziren.

MIKEL ARRIETA / SEGURA

Azken urteotan garaipenaren atzetik ibili ostean, igandean me-rezitako garaipena lortu zuten Amaia Agirre eta Eduardo Murumendiarazek. Trikitiarekin txistuarekin baino hobeto moldatu ziren arren, oro har bikain aritu ziren bergararrak. Eduardo Murumendiaraz garaipen honen atzetik ibili da azken urteotan. Amaia Agirre Murumendiarazek txapelketa honetara aurkeztzen duen hirugarren bikoteakidea da (lehengo urtean jadanik bigarren egin zuten elkarrekin), eta azkenean lortu dute garaipena.

Pronostikoen kontra gainera. Lehengo urtean garaile gertatu ziren Belen Sagarzazu eta Isaac Agirre ziren Txapelketa honetako XVII. edizioa irabazteko faborito nagusiak. Azkoitiko bikoteak igandean irabaziz gero, bere egingo zuten Nestor Basterretxearen garaikurra. Bergarako Udalak gordeko du ordea, urte batez Basterretxearen garaikurra. Honekin batera, 50.000 pezeta (2.500 libera inguru), urrezko plaka, makila, txapela, zapia eta Donostiako Turismo Ekintze-txeak emandako bidaia eskuratu zituzten Bergarakoek. Belen Sagarzazu eta Isaac Agirrek 40.000 pezeta eta zilarrezko plaka eskuratu zituzten.

Aberastasuna

M. A. / SEGURA

Dantza munduan esanahi berezia du urtero Seguran jokatzeko den Euskadiko Dantza Askatuko Txapelketak. Dantza munduan ezohizkoak diren antolaketa maila, erakarpena eta oihartzuna ditu txapelketa honek. Erakundeek ere garrantzi berezia ematen diote txapelketa honi. Igandean bertan ziren sariak banatzen Eusko Jaurlaritzako Patxi Plazaola, Gipuzkoako. Foru Aldundiko Kultura diputatua den Maria Jesus Aranburu eta Karmentxu Etxeberria Segurako alkatea.

Bada ordea dantzarien artean egonezina sortzen duen puntu bat. Euskal Herriko txapelketa izanik, eta arauk besterik zehazten duten arren, epainahaikide



Amaia Agirre eta Eduardo Murumendiaraz txapelkunak. MIKEL ARRIETA

Sailkapena

Bikotea	Txistu	Trikitixa	Orotara
1. E. Murumendiaraz - Amaia Agirre	250	258	508
2. Isaac Agirre - Belen Sagarzazu	243,5	249	492,5
3. Iban Agote - Iraultza Garmendia	228	231,5	459,5
4. J. Aitzpitarte - Alazne Gonzalez	226	229,5	455,5
5. Xabier Lago - Cristina Ruiz	223	231	454
6. Parrondo anai-arrebak	230,5	219,5	450
7. Kimetz eta Eneritz Larrañaga	220,5	225,5	446
8. Ibon Elorza - Olatz Nograro	214,5	216,5	431
9. T. Ugaldebere - Miren Illarreta	214,7	202	416,7
10. Iban eta Nekane Gabilondo	207,5	203,5	411
11. Pello eta Isabel Etxarte	209	201	410
12. Isaac eta Eba Aranbarri	201,5	195,5	397
13. Gorka Saez - Arantxa Uribarren	200,5	187	387,5
14. Iker Basauri - Olatz Gabilondo	192,5	192,5	385
15. Unai eta Nerea Bengoetxea	191,2	189,5	380,7
16. Miren eta Oskar	190	182	372

MAILA HANDIKO TXAPELKETA Lezoko Iraultza Garmendia eta Iban Agote bikoteak osatu zuen podiuma. Aurreko bi bikoteengandik oso urrun,

guztiak gipuzkoarrak dira. Zentzu honetan ulertzeko da bostgarren postuan sailkatu zen Cristina Ruiz-Xabier Lago bikotearen haserrea. Sestaokoek hirugarren egin zuten lehengo urteko txapelketan, eta aurten maila polita erakutsi arren, bostgarren egin zuten. Ez ziren batere pozik txapelketa amaitu ostean.

Era berean ezin aipatu gabe utzi Isabel eta Pello Etxarte Iruñeko bikotearen lana. Nafarroako ordezkariak, Sestaoko bikoteak bezala, txalo ugari jaso zituzten jendearen aldetik, baina azkenean 11. sailkatu ziren. Dantza askatuaren baitan estilo arras ezberdinak daudela erakusten digu txapelketa honek. Epainahaikideak erabakia hartu bitartean, Euskal Herriko Aurrekulari Txapelketako txapelkunordeak Alpagata, Agurra eta Zortikoa dantzatu zituen.

lehia polita izan zen hirugarren posturako. Iraultza Garmendia-Iban Agote (Lezo), Alazne Gonzalez-Joseba Aitzpitarte (Azkoitia), Cristina Ruiz-Xabier Lago (Sestao) eta Parrondo anai-arrebak (Hernani) bederatzi puntuko aldean sailkatu ziren. Azkenean Lezokoak izan ziren hirugarren. Era honetan Segurako Txapelketak eman duen bikote onenetarikoaren (Juan Joxe Ugalde eta Edurne Esnaola) Lezoko 'harrobiaren' lehen emaitzak agerian geratu dira.

Aipatu behar da oro har 17 bikoteek oso maila polita erakutsi zutela. Patxi Sarasola, Juan Joxe Ugalde, Xabier Mendizabal, Juanma Oronoz eta Gene Yurre epaimahaikideek ez zuten inolako arazorik izan sailkapena osatzeko. Txapelketa aurretik, epaimahaian idazkari lana egin duen Axen Egañari omenaldia eskaini zioten antolatzaileek. Mikel Sarriegik ere bat egin zuen omenaldi honekin, eta ohorezko aurrekua dantzatu zuen hasieran. Txapelketa amaieran eta epaimahaia erabakia hartu bitartean, Euskal Herriko Aurrekulari Txapelketako txapelkunordeak Alpagata, Agurra eta Zortikoa dantzatu zituen.

LABURREAN

LUIS DE PABLOren operak arrakasta handia Venezian

Luis de Pablo musikari bilbotarraren 'La madre invita a comer' operak arrakasta handia eta harrera beroa izan zuen joan zen larunbat gauean Veneziako Biurtekoan egindako estreinaldian. Ikusleak hamar minutuz aritu ziren emanaldi bukaeran txalo betean, eta kritikak aho batez goretsi zuen opera ●

EUSKO Jaurlaritzak Liber erakusketan izango da

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila gaurtik larunbatera arte Bartzelonan egingo den Liber'93 Liburuaren Nazioarteko XI. Erakusketan izango da. Stand batek ordezkatu du Eusko Jaurlaritzak, eta bertan, euskarazko zein gaztelarazko argitalpen berriak ikusgai egongo dira, baita euskal arlo honetan sortzen diren jarduerak ere ●

MONSIEUR KLEBS eta Rosalie' lana gaur Gasteizen

Topo antzerki taldeak 'Monsieur Klebs eta Rosalie' obra taularatuko du gaur eta bihar Gasteizko Principal antzokian gaueko 9.00etatik aurrera. Gaurko emanaldia gaztelaraz izango da eta biharkoa euskaraz. Sekretu izugarriak gordetzen dituen mediku baten bizimodu are sekretuagoa jasotzen du Rene de Obaldiaren obrak ●

ARKITEKTOEN elkargoak beste bi hitzaldi antolatu ditu

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Gipuzkoako Ordezkaritzak beste bi hitzaldi antolatu ditu aste honetarako, apirilean eta maiatzean egindakoei jarraipena emanez. Bihar, 'Reimseko Katedralaren inguruaren proiektua eta lan eginberriak' gaiaren gainean hitz egingo du Patxi Mangadok arratsaldeko 7.30etan Kutxak Donostiako Andia kalean duen aretoan. Eta etzi, ordu eta toki berean, 'Reimseko Katedralaren ingurua birgaitzeko proiektua eta beste proiektu batzuk' izeneko hitzaldia eskainiko du Jose Ignacio Linazasorok ●